

IKASTAROAREN GIDA

SARRERA

Paziente baten hortzak eta ehunak erreplikatzeko edo kopiatzea, funtsezkoa bezain ohikoa da eguneroko praktika klinikoan Odontologian.

Eredu batekin diagnostikoa osatzen da, eta horren bitartez, tratamendu plan zehatza garatu daiteke. Esate baterako, ortodontzian oklusio bat ikertzeko edo aho osoa berreraiki eta birgaitzeko. Aldi berean, badakigu laborategian hartz-protesiak egiteko lehen urratsa inprimaketak direla.

Horregatik, ezinbestekoa da eredu dimentsioei dagokienez erreplika edo kopia zehatza izatea. Zehaztasun horrek lotura estua du inprimaketen kalitatearekin. Era berean, inprimaketa baten kalitatea inprimaketa teknika egokiarekin hobetu egiten da, bai eta ahozko ingurunearekin bateragarriak diren eta gure eskakizunak betetzen dituzten materialen erabilerarekin ere. Hartz-klinika baten helburua pazienteei bikaintasuna eskaintzea izan behar da, haien gogobetetasuna lortuz. Horrek, erantzun positiboa sortuko du odontologoaren garapen profesionalean. Ezin da ahaztu, odontologoa dela beti aho eta hortzen inpresioen arduraduna.

NORI ZUZENDUTA

Ikastaro hau Odontologia Gradu eta Master ikasleentzat erabilgarria izango da, klinikan izango dituzten biomaterialen eta tresnerien inguruko azalpenak emateaz gain, ahoko inprimaketak egiteko argibide eta aholku batzuk emango direlako.

AURREBALDINTZAK

Aurrebaldintzei dagokionez, komenigarria litzateke ikasleek praktika klinikoak pazienteekin hasita edukitzea, horrela,

ikasgaien eskuratutako ezagutzak modu autonomoan eta kritikoan praktikatu ditzakete. Ikastaro honi esker, ikasleek odontologiako klinikan egunero bete beharreko lanean trebetasun esperimentalak lortzeko aukera izango dute. Aldi berean metodologia, ohitura onak eta gaitasunak jorratu ditzake. Gainera, landuko den guztiak arazoak konpontzeko eta egoera berrietara egokitzeko trebetasuna izateko parada ematen du.

Arazo gehiegirik gabe jarraitzeko, ondo legoke besteak beste "Biomaterialak Odontologian", "Protesi erauzgarria" eta "Protesi finkoan" oinarritzko ezagutzak izatea, baina ez da derrigorrezkoa.

Hala eta guztiz ere, ikastaroaren bitartez Odontologiako gradua ikasten ari den edozein ikaslek, bere ezagutza zabaltzeko kezka izanez gero, praktika klinikoei etekina atera diezaike. Odontologiako ikasleek ez ezik, Osasun zientzietako edozein Gradutako ikasleentzako interesgarria izan daiteke.

HELBURUAK

Ikastaro honen helburu nagusia da ikasleak Odontologian erabilitako inprimaketa material guztien osagaiak eta propietateak ikastea, eta praktika klinikoan emaitza ezin hobeak eduki ahal izateko jarraibideak ezagutzea.

BERARIAZKO GAITASUNAK

Ikastaro hau egiten duen ikasleak bukaeran lortuko dituen berariazko gaitasunak hauek dira:

1. Odontologiako inpresio materialen erabilera eta egokitasuna ezagutuko du. Ondoren, gai izango da inprimaketa materialak behar bezala hautatzeko.
2. Ikasleak hortz-klinikan erabili ohi diren inprimaketa material guztiak zuzen eta zehatz manipulatzeko ikasiko du.
3. Klinikan inpresio zehatzak lortzeko baldintzak identifikatu eta askotariko inpresio teknikak erabiltzen ikasteko aukera izango du.
4. Ikasleak behar bezala interpretatu ahal izango ditu fabrikatzaileen azalpenak. Era berean, azken horien argudioak eztabaidatzeko gai izan beharko du.
5. Ikaslea gai izango da teknikari protesikoek erabiltzen eta manipulatzeko dituzten materialak ezagutzeko, azalpenak ulertu eta zalantzan jarri ahal izateko, modu horretan laborategiko lanetan kalitate handia lortzeko.
6. Sor daitezkeen inprimaketa berriak zentzu kritikoz txertatzeko gai izan beharko du.

Gaitasun horiek eskuratzeko ikastaroa hainbat ikasgaitan banatuko da, eta ikasgai horiek elkarren artean lotuta egongo dira. Eskuratutako gaitasun guztiekin, ikasleak ikasgaiaren helburu nagusia lortu dezake, hau da, inpresio materialak ezagutu modu eraginkorrean eta seguruan erabilia ahalik eta fidagarritasun gehien eskuratzeko.

GAI ZERRENDA

- 1.Gaia. Biomaterialak. Sarrera.

Material odontologikoen azterketari aurre egiteko modu logikoa oinarritik hasia da, funtzioaren eta konposizioaren arabera sailkapena ezagutuz.

2. Gaia. Biomaterialen propietate fisikoak

Propietate mekanikoak

Gainazaleko Tentsioa

Materialen propietate mekanikoek, materialek egoera solidoan daudenean kanpoko indarrekiko duten erantzuna azaltzen dute. Gainazaleko fenomenoek materialaren kanpoko aldean duten portaera erakusten digute, eta ez sakontasun osoan.

3. Gaia. Inprimaketa materialen sailkapena.

Inprimaketa materialak hainbat propietateen arabera sailkatzen dira: propietate fisikoak, ahoan gogortzeko modua, biskositatea, gogortu arretik eta ondoren dituzten propietate fisikoak, Ameriketako Hertz Elkartearen sailkapena eta ur xurgapena.

4. Gaia. Inprimaketa material ez elastikoak

Igeltsua, ereduak egiteko konposatuak, Zinkenolito konposatuak.

5. Gaia. Inprimaketa material hidrofiliakoak

Agar-agarra, alginatoa

6. Gaia. Inprimaketa material elastomeriko ez urtsuak

Silikonak, polieterrak eta merkaptanoak

7. Gaia. Igeltsua

Inpresioaren hutsunea egiteko erabiliko den materiala.

8. Gaia. Erretxina akrilikoak

Inprimaketak egiteko material lagungarria, banakako kubeta, inplanteen inpresioak, birbaseak egiteko.

9. Gaia. Inprimaketak. Sarrera.

Inprimaketen garrantzi klinikoak, eragina duten parametro klinikoak eta inprimaketen sailkapena.

10. Inprimaketak. Teknika.

Inprimaketa teknikak klinikan eta arau garrantzitsuak.

11. Digitalizazioa inprimaketetan.

Inprimaketa digitalen abantailak eta eragozpenak CAD/CAM sistemarekin.

METODOLOGIA

Online ikastaroa da, OCW plataformaren bidez egindakoa. Edukiak moduluetan diseinatu eta egituratu dira. Ikastaroa norberak ikasteko prestatu da, autoikaskuntzaren bidez ikastaroaren helburuak betetzeko. Oro har, edukiak garatzeko azalpen teoriko idatziak ematen dira. Ikaskuntza errazteko, ikastaroa ikus-entzunezko baliabideekin osatzen da: irudiak, argazkiak, bideoak etab. Ikasgai bakoitza lantzeko hurrengo materialak daude:

.Ikasteko materiala

Fitxategi bakoitzean gaiaren azalpen teorikoa ematen da eta argazki klinikoaren bidez odontologiako materialen erabilera praktikoa erakusten da.

.Material osagarria

Taulak, gai teorikoen bilduma eta laburpena.

Ekintza praktikoak ikusteko bideoak.

Autoebaluazio test frogak.

Ikasleak irakasgaiaren helburuak lortu dituela egiaztatzeko eta eskuratu duen ezagutza maila neurtzeko autoebaluazio test froga egin dezake.

KRONOGRAMA

Ikastaroaren edukietatik modu sekuentzialean igaroko zara; ezin izango duzu aurrera egin modulu batean aurreko moduluaren ikasketa bete ez baduzu.

Gai teorikoak astiro irakurtzea gomendatzen da bai eta bideoen laguntza erabiltzea ere. Ikasgaiak ikusitakoan, taulak begiratu. Ikastaroa ondo egiteko, gomendagarria da bibliografian adierazitako lanak irakurtzea.

Ordu kopurua gutxi gorabehera 65 ordu da. Gaiak 10 astean beharko dira.

Gaiak eta errepassoak

Asteak	1	2	B	3	4	B	5	6	B	7	8	B	9	10	11	B
1																
2																
3																
4																
5																

6																	
7																	
8																	
9																	
10																	

Ikastaroko ikasgaiek ez dauzkate pisu bera. Hurrengo taula honetan azaltzen dira gutxi gorabehera gai bakoitza ondo ezagutzeko beharrezkoak izan daitezkeen orduak, orientazio eta laguntza gisa:

Lan orduak / Gaiak eta errepassoak

	1	2	B	3	4	B	5	6	B
Lan orduak	2	6	4	2	4	3	4	6	5

	7	8	B	9	10	11	B
Lan orduak	4	4	4	2	4	2	4

Ariketak. Bi motatako ariketak egiteko behar den denbora:

Kasu klinikoak egiteko guztira bi ordu behar dira.

Galdera moduko ariketak egiteko guztira ordu bete behar da.

Kasu klinikoak	Galderak
----------------	----------

Lan orduak	2	1
---------------	---	---

Autoebaluazio proba

	Prestatzeko	Egiteko
Lan orduak	4	1

Amaierako ebaluazio testa ikastaroaren helburuak bete direla bermatzeko, eta ikasleek helburuok bere lanpostuan aplikatzeko beharrezko ezagutza eta gaitasunak eskuratu dituztela bermatzeko izango da.

